

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Emandako euskarrietan bizidunen antolaketa-mailak eta bizi-funtzioak garatzeko behar diren elementuak eta horien funtzioak identifikatu.	<p>1.1. Bizidunei dagokien antolaketa-mailak egoki identifikatu eta adierazi ditu.</p> <p>1.2. Gorputzaren funtzionamenduari buruzko ikerketa-dokumentu egokia egin eta balioztatu du.</p>
2. Hainbat informazio-iturri erabiliz giza gorputzaren funtzionamendurako behar diren elementuak, bizi-ohiturek duten eragina eta gaixotasunak ikertu ondoren, lortutako emaitzak balioetsi.	<p>2.1. Nutrizio-funtzioarekin lotutako aparatuen organoak eta beren funtzioak ondo azaldu ditu.</p> <p>2.2. Bizi-ohiturek nutrizio-funtzioan dituzten eraginak eta gaixotasunak ondo azaldu ditu eta hauei aurre egiteko proposamen egokiak egin ditu.</p> <p>2.3. Ugalketa-funtzioarekin lotutako aparatuen organoak eta beren funtzioak ondo azaldu ditu.</p> <p>2.4. Bizi-ohiturek ugalketa-funtzioan dituzten eraginak eta gaixotasunak ondo azaldu ditu eta hauei aurre egiteko proposamen egokiak egin ditu.</p>
3. Hainbat euskarri erabiliz, disfuntzioei eta gaixotasunei aurre egiteko sistemak identifikatu, horien aplikazioei buruz gogoeta egin eta, horien aurrean norberak duen jarrera azaldu.	<p>3.1. Gaixotasun infektzioso eta ez-infektzioso desberdinak ondo identifikatu eta azaldu ditu.</p> <p>3.2. Disfuntzio eta gaixotasunei aurre egiteko sistemak ondo identifikatu eta azaldu ditu.</p>
4. Emandako euskarriak erabiliz erlazio funtzioa, nerbio-sistema eta sistema endokrinoaren elementuak identifikatu, beren funtzio nagusiak, ezaugarriak, eta, horietan bizi-ohiturek duten eragina eta norberak duen jarrera eta erabakiak hartzeko urratsak jorratu.	<p>4.1. Nerbio-sistemaren atalak eta funtzioak ondo azaldu ditu.</p> <p>4.2. Bere jarrera kontutan hartuta osasuntsuak diren eta ez diren ekintzek nerbio-sisteman dituzten eraginak ondo azaldu ditu.</p> <p>4.3. Organoak emateari lotutako ekintzen ezaugarriak ondo azaldu ditu.</p> <p>4.4. Sistema endokrinoaren osagai, ezaugarri eta funtzioak ondo azaldu ditu.</p>